

# Piratei buruzko bat



gazte eta helduentzako  
irakurketa gida

2017ko abuztua

Ausartak, erromantikoak, esploratzaile handiak, beldurgarriak, kudelak... Piratak, kortsarioak eta filibusteroak liburutegira iritsi dira, eta haien historia, haien itsasbideak Karibeko uharteen barrena eta, batik bat, haien kontakizun ospetsuenak aurkeztera datoz.

Irakurketa gida honek piraten literaturaren izenburu nabarmenak biltzen ditu: historian zehar pertsonaia menderakaitz hauen arketipoa eraikitzen joan diren obra klasikoak, eta generoaren ikuspegi berriak dakartzaten egungo izenburuak.

Testuen altxor iradokitzailea!



# PIRATAK HISTORIAN EDO PIRATEN ISTORIOAK?

## PIRATAK ANTZINAROAN ETA ERDI AROAN

Heroiak edo piratak? Mugak nahasiak dira: mundu homerikoan piraten jarduna ez zen nahitaez zerbait deitoragarria —jakina, nondik ikusten den, ez baitugu uste haien erasoen jomuga ziren herritarrek berdin pentsatuko zutenik—, eta oso lotuta zegoen gerrari. Gainera, bizimodua arpilatzeaz ateratzeak gizarte eskalan gora egiteko aukera ematen zuen, hain jardun "eraikitzailean" lortutako irabaziei esker, gehienbat.

**Homerok** gizarte egoera hori deskribatzen du *Odisearen* IX. eta XIV. kantuetan. (*Odisea*. Cátedra, 1987).

Historian jauzi bat eginez gero, **bikingoen** garaira iritsiko gara; Europa osoan egiten zituzten erasoaketa arpilatzeak zirela-eta, herritarrek haien beldur bizi izan ziren hainbat mendez. Saga askotan kontatzen dira gehiegikeria horiek, esate baterako, honetan:

STURLUSON, Snorri. *Saga de Egil Skallagrimsson*. Miraguano, 1988 (+18)



## PIRATERIAREN LEKUKO IZATEKO ZORI(TXAR)A EDUKI ZUTEN EGILEAK (XVII. MENDEA)

Idazle askok ezagutu zuten piraten artean bizitzearen "laztasuna".  
**Alexandre O. Exquemelin** izan zen horietako bat, liburu honetan  
kontatzen duenez:

*Bucaneros de América.* Valdemar, 1999 (+15)

Bizikidetzaz horren berri ematen zaigu ere **Daniel Defoeren** hainbat  
obratan::

*Aventuras del capitán Singleton.* Anaya, 1996 (+15)

*Historia general de los robos y asesinatos de los más famosos piratas.*

Valdemar, 2001 (+18)

*Singleton kapitainaren ibilerak.* Mensajero, 1999\* (+15)

Lehenago, **Cervantesek** berak pirata berebereen esku preso egotearen  
esperientzia ezagutu zuen bere larruan, eta horren berri eman zuen  
**Kixotearen** hainbat kapitulutan (lehen zatia XXXIX.ean eta  
bigarrengoaren LXIII.ean). Gainera, bere bi antzezlanetan berriro agertzen  
dira pirata bereberek:

*Los baños de Argel.* Taurus, 1984\* (+18)

*Los tratos de Argel*

**Lope de Vegak** ere piratek Espainiako interesei zenbateko kaltea egin  
zieten aipatzen du, horietako bat bereziki gailenduta: *sir* Francis Drake,  
kortsario heroikoa ingelesentzat eta kriminal odoltsua Espainiako  
agintarientzat. "Asmamenen Fenixa" deitutakoak poema epiko bat idatzi  
zuen, pirata horren heriotza eta Espainiak koroa ingelesa garaitu izana  
ospatzeko:

*La Dragontea.* Hemen: Obras escogidas, tomo II. Aguilar, 1987\* (+18)

## **GARAI ERROMANTIKOA: PIRATAK LITERATURAZ JABETZEN DIRA (XIX. MENDEA)**

Hala ere, sentsibiltate erromantiko berriak “modan” jarri zituen berriro piratak, gure arteraino iritsi den piraten irudi honen bidez: heroi zokoratuak, askatasunaren defendatzaileak, gizarte bidegabekerien aurkako erreboltariak.

**Lord Byron**ek profil abenturazale horren oihartzuna ekarri zigun:

*El corsario*. Espasa-Calpe, 1976\* (+18)

Dirudienez poeta ingelesak ale asko saldu zituen liburua salgai jarri eta berehala.

Arketipo hori bera **José de Espronceda**ren inspirazio iturri izan zen, eta horrela jaso zuen *Canción del pirata* ezagunean:

*Poesías: 1840*. Octaedro, 2004 (+15)

**James Fenimore Cooper**-ek, *Azken Mobikanoaren* egileak, ospe handia lortu zuen garai hartan obra honi esker:

*El corsario rojo*. Auriga, 1986\* (+15)

Garai berean, piraten gaia “abordatu” zuten ere beste eleberrigile hauek: **Walter Scott**, *Ivanhoe* eta *Rob Roy* obren egilea...

*El pirata*. Planeta, 1988\* (+15)

(Eskoziako Shetland uharte espektraletan girotutako obra)

...eta **Washington Irving**, *Sleepy Hollow*ren sortzailea eta liburu hauen idazlea:

*Los buscadores de tesoros*. Miraguano, 2000 (+18)

*Una historia de Nueva York*. Nórdica, 2016\* (+18)



Alabaina, piraten eta haien altxor ezkutuen, mapen, uharteen... mundu mitikoaren erreferente erromantiko nagusia, zalantzarik gabe, **Robert Louis Stevenson** izan zen eta haren *Altxorraren Uhartea* obra ospetsua.

Abenturazko eleberri klasiko hau atalka eman zuten *Young Folks* aldizkarian 1881. eta 1882. urteetan. Liburu formatuan 1883an argitaratu zen, eta orduz geroztik etengabe argitaratu da, eta hamaika sortzailereren inspirazio iturria izan da. Liburu horren arrakasta handiaren eta unibertsaltasunaren erakusle dira haren bertsio ugariak. Hona hemen liburutegian eskura dauden argitalpenen lagin txiki bat:

- Altxor uhartea*. Elkarlanean, 2001 (+13)  
(itzultzaile eta koordinatzailea, Iñaki Mendiguren).
- Altxor uhartea*. Ibaizabal Argitaletxea, 1991 (+13)  
(itzulpena, Maria Garikano. Galtzagorri Elkartearen gomendatu du).
- La isla del tesoro*. Edhasa, 2003 (+13)  
(ilustrazioak, Joan Junceda).
- La isla del tesoro*. Hipotesi, 2003 (+13)  
(Gazielen bertsioa, Juncedaren ilustrazioak).
- La isla del tesoro*. Libros del Zorro Rojo, 2015 (+13)  
(ilustrazioak, Ralph Steadman).
- La isla del tesoro*. Valdemar, 2000 (+13)  
(itzultzailea, Francisco Torres Oliver eta ilustrazioak, N.C. Wyeth).

Liburua hainbat irakurmen beharretara ere egokitu da:

- La isla del tesoro*. Almadraba, 2009  
(Irakurketa Errazeko argitalpena, bereziki egina irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat).

Hizkuntza askotara itzuli da, esate baterako, arabiarrera:

*Jazirat al kanz*. Dar El Chimal, 2005

...bai eta lengoi askotara ere, historia ospetsua berrinterpretatzen duen manga hau bezala:

TEZUKA, Osamu. *La nueva isla del tesoro*. Glénat, 2008 (+15)

Era berean, ezin konta ahala bertsio egin dira zinemarako. Hona hemen adibide batzuk:

*La isla del tesoro*. Zuz.: Byron Haskin. Erresuma Batua, 1950 (adin guztientzat)

(Egokitzapen onenetako bat, Bobby Driscoll-ek Jim-en papera egiten du, eta Robert Newton-ek, Long John Silver piratarena).

*La isla del tesoro*. Zuz.: Victor Fleming. AEB, 1934 (adin guztientzat)  
(Klasiko honen zinemarako bigarren egokitzapena —lehenengoa zinema muturako izan zen—).

*La isla del tesoro*. Zuz.: Fraser C. Heston. AEB, 1990 (adin guztientzat)  
(Bertsio berrienetako bat, Charlton Heston eta Christopher Lee dira protagonistak)

Eta audio bertsio interesgarri hau:

*La isla del tesoro. Ficción sonora*. RNE, 2014

RNEko soinu fikzioaren taldea lehenengoz itsaoratu zen, eta Roberto del Álamo aktoreak egin zuen Long John Silver pirataren papera.

<http://www.rtve.es/alcarta/videos/ficcion-sonora/ficcion-sonora-isla-del-tesoro-25-06-14/2636497/>

Stevensonen ondoren, **Emilio Salgarik** bi unibertso pirata sortu zituen, guztiz desberdinak: bat, Asia inguruan, non Sandokan, Yáñez eta Mompracemeko Tigreak britainiar inperioaren aurka borrokatzen dira, eta beste bat, Karibean, non Kortsario Beltz beldurgarria eta oinazetsua den protagonista.

Karibeko piraten zikloa

*Kortsario Beltza*

*Karibeko erregina*

*Kortsario Beltzaren alaba*

*Kortsario Gorriaren semea*

*Azken filibusteroak*

Malasiako piraten zikloa

*Mompracemeko Tigreak*

*Ohian beltzaren misterioak*

*Malasiako piratak*

*Bi Tigreak*

*Itsasoko Erregea*

etab...

**Julio Vernek** ere amore eman behar izan zuen piraten liluraren aurrean, liburu honetan ikus daitekeen moduan:

*Los piratas de Halifax*. Molino, 1984\* (+15)

*El faro del fin del mundo*. Smile Price, 2009 (audio liburua)

(XX. mendearen hasierako urteetan argitaratu ziren biak)

Haren obraren barruan, ordea, pirata nagusia Nemo kapitaina da, bi obra hauen protagonista:

*Veinte mil leguas de viaje submarino*. Anaya, 1995 (+15)

*La isla misteriosa*. Gaviota, 2001 (+15)



## XX. MENDE HASIERA

**Jack Londonek**, abenturaz beteriko bizitza izan zuen idazleak, piratei buruzko eleberri ugari idatzi zituen XX. mendearen hasieran:

*La expedición del pirata*. Ed. Internacionales Universitarias, 1999 (+15)

*Pirataren ibilaldia*. Elkar, 1991\* (+15)

*Los piratas de la bahía de San Francisco*

Askotan aipatzen dugun beste izenetako bat Garfio da, **J. M. Barriek** sortutako Peter Panen etsai porrokatua. Hona hemen eskura dauden argitalpenetako batzuk:

*Peter Pan*. Alianza, 2007 (+13) [gaztelaniaz]

*Peter Pan*. Elkar, 2004 (+13)

**Rafael Sabatini** italiarrak, *Scaramouche* ezagunaren egileak, hainbat lan ditu ere —guztiek dute zinemarako bertsioa— piratez izenburupeko zerrendan:

*El capitán Blood*. Edhasa, 2004 (+15)

*El cisne negro*. Molino, 1984\* (+15)

*El balcón del mar*. Edhasa, 2005\* (+15)

Sherlock Holmes pertsonaia sortzeagatik mundu osoan ezagun egin zen **Arthur Conan Doyle** idazleak ere piraten istorio bat idatzi zuen:

*Historias de piratas y del agua azul*. Valdemar, 1990\* (+15)

**Richard Hugues** britainiarrak pirata batzuek atzemandako haur talde baten istorioa sortu zuen; alabaina, istorioan kontaktzen denez, hurrek bahitzaileak baino eskrupulu gutxiago zituzten:

*Huracán en Jamaica*. Alba, 2007\* (+18)

**Robert Margerite**k abentura istorio bikaina asmatu zuen, *Altxorarren Uharteko* hainbat pertsonaia ere tartean sartuta, hala nola Flint kapitaina eta Billy Bones.:

*El tesoro de Morgan. Una historia de piratas.* Edhasa, 1997 (+15)

**Daphne du Maurier** britainiar idazleak itsaslapurren modalitate berri bat sortu zuen: lurretik aritzen dira, itsasontziei ziria sartzen diete kostaldean hondoratu daitezen, eta gero haien kargaz jabetzen dira.

*La posada de Jamaica.* Ediciones G.P, 1983\* (+18)

**John Steinbeck**-ek piraten istorioak idazteko saialdia egin zuen, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Haren lehen eleberria zen:

*La taza de oro. Vida de sir Henry Morgan, bucanero, con ocasionales referencias a la historia.* Comunicación y Publicaciones, 2005 (+18)

## **BI MENDEREN ARTEKO PIRATAK**

XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran piraten eleberriek leku nabarmena izaten jarraitu dute narrazioetan. Zenbait kasutan, egileek gazte denborako irakurraldietan bizi izandako uneak ekarri dituzte gogora (dagoeneko aipatutako Salgari, Stevenson-eko Verne), eta abentura horietako protagonistak omendu dituzte:

MADRID, Juan. *El hijo de Sandokán.* La esfera de los libros, 2003 (+13)

Beste batzuetan, klasiko baten (*La posada de Jamaica*, Daphne du Maurier) argudioa hartzen dute istorio berri bat sortzeko:

LAWRENCE, Iain. *Piratas de tierra.* SM, 2000 (+13)

Eta jakina, egiazko piratak eta haien bizitzak idazle askoren inspirazio iturri izan dira. Horixe da *sir Francis Drakeren* kasua, haren oroitzapena, gutxiago edo gehiago, istorio hauetan agertzen baita:

MOURE, Gonzalo. *Yo, que maté de melancolía al pirata Francis Drake*. Anaya, 2001 (+13)

ZAPATA LERGA, Pablo. *El tesoro de la isla de Ízaro*. Edelvives, 2006 (+13)

**Étienne Pellot** Hendaiaiko kortsario ospetsua eta herrian oso maitatua dena askotan ekarri dute gogora:

ETXEBERRIA, Hasier. *Inesaren balada*. Elkar, 2002 (+13)

MENDIZABAL ELORDI, Iñaki. *Pellot eta Enperadorearen babiketa*. Ibaizabal, 2007 (+13)

**Jean David Nau** "Olonesa" goitizenez ezaguna zen pirata odoltsua ere eleberri batean aipatzen da:

HERNÁNDEZ, Pau Joan. *La Tripulación del Pánico*. Edebé, 2004 (+13)

Piraten egunerokoak edo memoriak, **Alexandre O. Exquemelinen** *Amerikako Bukaneroak* bezala, obra interesgarrien inspirazio iturri izan dira:

BOULLOSA, Carmen. *El médico de los piratas*. Siruela, 2002 (+13)

Gaur egungo idazle askok girotze historikoan aurkitu dute hainbat garaitako piraten mundua islatzeko modua.

Hala, zenbait idazlek XVI. mendean mediterraneoan barrena lasai asko zebiltzan kortsario bereber eta turkoetan jarri dute arreta:

PEREZ-REVERTE, Arturo. *Corsarios de Levante. Las aventuras del Capitán Alatríste*. Alfaguara, 2006 (+15)



Beste batzuek, berriz, XVII. mendera jo dute, pirateriaren “urrezko aro” dei genezakeen garaia, Kariben nabigatzen zuten kortsario, bukanero eta piratengana...

IRURZUN, Patxi. *Los dueños del viento*. HarperCollins, 2016 (+18)

...edo Argien Mendera, zeina gutxi-asko islatzen baita Afrikako kostaldeetan nabigatzen zuten beltz tratularien itsasontzi beldurgarriei buruzko abentura honetan:

MARTÍNEZ MENCHÉN, Antonio. *Con el viento en las velas*. Alfaguara, 1997 (+15)

Beste puntu interesgarri bat errepresalia gutunak edo kortso agiriak dira – lapurtu eta arpilatzeko baimena–, garai askotako erregeek eta agintariek banatu zituztenak. Halakoak banatu ziren XIX. mendean, Txileren independentziaren alde egiteko:

MACKAY, Edgardo. *Balleneros y corsarios*. Noray, 2004 (+18)

Narrazio batzuetan erreferentzia historikoak ez dira hain zehatzak, abentura eta ekintzaren onurarako, baina espainiar Karibea izenekoaren piraten ekosistemaren esentzia erakusten dute:

VÁZQUEZ-FIGUEROA, Alberto. *Piratas*. Plaza & Janés, 1996 (+15)

Eta aipatzeko leudeke oraindik, girotze historiko edo geografiko erreala ez izan arren, garai erromantikotik jaso eta imaginario kolektiboan bizirik dauden ideal piratak biltzen dituzten piraten istorioak:

GOLDMAN, William. *La princesa prometida*. Martínez Roca, 2002 (+15)  
GUERRA CID, Mar. *Manorroja*. Edebé, 2010 (+15)

Edo, protagonistek, imaginazioaren bidez, pirata ausartei buruz hamaika aldiz irakurritako abenturak birsortzen dituzten istorioak, hala nola:

CALLEJA, Seve. *La isla de los Esclavos Felices*. Espasa, 1998 (+13)

CALLEJA, Seve. *Pirata jokoa*. Elkar, 1997 (+13)

HANDLER, Daniel. *Todos somos piratas*. Siruela, 2016 (+15)

MARTÍNEZ GIL, Fernando. *El juego del pirata*. Edelvives, 2006 (+13)

## GENERO GUZTIETAKO PIRATAK (fikzioa)

Eleberriez harago, pirataren irudia presente dago beste fikzio genero batzuetan. Atal honetan, piraten unibertso arrakastatsu hori osatzen duten obra nabarmenetako batzuk aipatzen ditugu.

### KONTAKIZUN LABURRAK:

BUSCADORES de tesoros. *Cuentos de piratas*. Juventud, 2003 (+11)

CALLEJA, Seve. *Piratak itsaslapurren istorioak*. Descleé, 2008 (+11)

HISTORIAS de la piratería. Miraguano, 1998 (+15)

PIRATEN historiak. Elkarlanean, 1998 (+15)\*

POR donde el viento nos lleve. *Antología de relatos españoles de piratas*. Ediciones B, 2002 (+18)



## KOMIKIAK:

- ARLESTON. *Lanfeust de Troy, Thanos el inoportuno*. Devir, 2003 (+13)
- BLAIN, Christophe. *Isaac el pirata*. Norma, 2003 (5 lib.) (+13)
- DUFAUX, Jean. *Barracuda*. Norma, 2012 (3 lib.) (+15)
- EISNER, Will. *Águila Azul*. Norma, 2002 (+13)
- FALK, Lee. *El hombre enmascarado*. Ediciones B, 1988 (8 lib.) (+13)
- FANO, Daniel. *Kortsarioen ostatua*. Euskal Herriko Ikastolak, 2015 (+15)
- LOISEL. *Peter Pan*. Glénat, 2004 (5 lib.) (+13)
- MATSUMOTO, Leiji. *Capitán Harlock, El pirata espacial*. Glénat, 2002 (+13)
- MUNUERA, José Luis. *Los Campbell*. Dibbuks, 2014 (4 lib.) (+13)
- PRATT, Hugo. *La balada del Mar Salado*. Norma, 1992 (+15)
- SÁNCHEZ, E; ROSSI. *El capitán patapalo*. Norma, 2000 (+13)

## IKUS-ENTZUNEZKO FIKZIOA:

### Zinema

- Black sails*. AEB, 2014 (telesaila) (+18)
- Capitán Phillips*. Zuz.: Paul Greengrass. AEB, 2013 (+12)
- Corto Maltés*. Zuz.: Pascal Morelli. Frantzia, 2002 (+13)
- El Capitán Kidd*. Zuz.: Rowland V. Lee. AEB, 1945 (adin guztientzat)
- Hook*. *El capitán Garfio*. Zuz.: Steven Spielberg. AEB, 1991 (adin guztientzat)
- La isla de las cabezas cortadas*. Zuz.: Renny Harlin. AEB, 1995 (+7)
- La isla del tesoro*. Zuz.: Byron Haskin. Reino Unido, 1950 (adin guztientzat)
- La isla del tesoro*. Zuz.: Victor Fleming. AEB, 1934 (adin guztientzat)
- La isla del tesoro*. Zuz.: Fraser C. Heston. AEB, 1990 (adin guztientzat)
- Piratas del Caribe. El cofre del hombre muerto*. Zuz.: Gore Verbinski. AEB, 2006 (+7)
- Piratas del Caribe. En el fin del mundo*. Zuz.: Gore Verbinski. AEB, 2007 (+7)
- Piratas del Caribe. En mareas misteriosas*. Zuz.: Rob Marshall. AEB, 2011 (+7)
- Piratas del Caribe. La maldición de la Perla Negra*. Zuz.: Gore Verbinski. AEB, 2003 (+7)
- Posada Jamaica*. Zuz.: Alfred Hitchcock. Erresuma Batua, 1939 (adin guztientzat)
- La princesa prometida*. Zuz.: Rob Reiner. AEB, 1987 (adin guztientzat)
- Los Robinsones de los mares del sur*. Zuz.: Lowell S. Hawley. AEB, 1960 (adin guztientzat)
- El temible burlón*. Zuz.: Robert Siodmak. AEB, 1952 (+7)



## Bideojokoak

*Age of pirates. Caribbean tales.* Playlogic International, 2006 (dvd-rom)  
<https://www.alawar.es/game/robinson-crusoe-and-the-cursed-pirates/>

## Ikuskizunak

*Le corsaire.* Dir.: Nattew Diamond. 1999 (ballet)

# PIRATAK ETA PIRATERIA (obra informatiboak)

ABELLA, Rafael. *Los halcones del mar. La gran aventura de la piratería.* Martínez Roca, 1999

APESTEGUI, Cruz. *Piratas en el Caribe.* Lunwerg, 2000

ARMERO, Álvaro. *Piratas, corsarios y bucaneros.* Libsa, 2004

AZPIAZU, José Antonio. *Historias de corsarios vascos. Entre el comercio y la piratería.* Ttartalo, 2004

DEFOE, Daniel. *Historia general de los robos y asesinatos de los más famosos piratas.* Valdemar, 2001

EARLE, Peter. *Piratas en guerra.* Melusina. 2004

EUSKAL balentzaleak. *Arrantzaleak ala kortsarioak?* Gordailu, 1985\*

GOSSE, Philip. *Quién es quién en la piratería.* Renacimiento, 2003

KELSEY, Harry. *Sir Francis Drake. El pirata de la reina.* Ariel, 2002

MENDIZABAL ELORDI, Iñaki. *Baleazaleak eta kortsarioak. Euskal odisea ipar Atlantikoan.* Elea, 2004\*

PIRATAS legendarios. *La verdadera historia.* DVD Spain General Distributions, 2003 (dvd)

ULLIVARRI, Saturnino. *Piratas y corsarios en Cuba.* Renacimiento, 2004

*La VIDA de los piratas. Contada por ellos mismos, por sus víctimas y por sus perseguidores.* Crítica, 2010

# GIDA HONEN SOINU BANDA

CAJUN musika: Lousianako begoaldeko doinuak. Musika ibilbidea. Biblioteca Civican Liburutegi, 2017

SUBURBANO. *Los delirios del pirata*. Karonte, 2002

## KONTSULTATUTAKO ITURRIAK:

“Los piratas en la literatura y el cine” Seve Calleja. Hemen:

[http://www.cuatrogatos.org/docs/articulos/articulos\\_219.pdf](http://www.cuatrogatos.org/docs/articulos/articulos_219.pdf)

(baita CLIJ 138. zenbakian ere:

<http://prensahistorica.mcu.es/ca/consulta/registro.cmd?id=1007645>)

“Piratas en la literatura” Manuel Cerdá. Hemen:

<https://musicadecomedia.wordpress.com/2015/01/02/los-piratas-en-la-literatura/>

Wikipedia: Piratería:

<https://es.wikipedia.org/wiki/Pirater%C3%ADa>

Pirateriaren urrezko aroa:

[https://es.wikipedia.org/wiki/Edad\\_de\\_oro\\_de\\_la\\_pirater%C3%ADa](https://es.wikipedia.org/wiki/Edad_de_oro_de_la_pirater%C3%ADa)

Odiseo eta Akiles: heroi homerikoetatik piratetara.

<http://www.temporamagazine.com/odiseo-y-aquiles-de-heroes-homericos-piratas/>

\*material hau eskuragarri dago Nafarroako  
beste liburutegi batzuetan

irakurketa gida  
jaitsi

[www.bibliotecaspublicas.es/civican](http://www.bibliotecaspublicas.es/civican)  
[CivicanLib.blogspot.com](http://CivicanLib.blogspot.com)

